



AXULAR LIZEOA: Egokitzapen eta hobekuntza arkitektonikoak

Axular Lizeoak eraikin nagusiko espazio batzuk eraberritzeko eta egokitzeko proiektu bat egin du, **hezkuntza-espazioak hobetzeko, jantoki-zerbitzua optimizatzeko eta ikastolako instalakuntza batzuk eguneratzeko** helburuarekin. Proiektuaren ardatza eraikineko **beheko solairuko eta erdisotoko** jarduketak dira.

Haur hezkuntzako espazioan hobekuntza lanak (2-3 urte)

Aldaketa garrantzitsuenetako bat 2 eta 3 urteko ikasleentzako eremuan egingo da. Gaur egun, espazio hori hainbat ikasgela eta korridore nagusi batek osatzen dute. Berrantolaketa honen ondoren, **espazio zabalagoa, malguagoa eta hezkuntza-metodologia aktiboetara egokitua izango dugu.**

Korridore eta pareta batzuk kenduko dira eskuragarri dagoen azalera hobeto aprobetxatzeko eta ikas-egoera anitzak ahalbidetuko dituen hezkuntza-ingurune irekiagoa sortuko da. Komunak ere berrantolatuko dira eta **espazio banaketarako elementu mugikorrak** gehituko dira, irakasleek **espazioa ikasleen beharren arabera** egokitu ahal izan dezaten. Gune berri horrek azalera handiagoa izango du erabilgarri eta ikasleek bazkaltzeko eta lo egiteko giro atsegina sortzea ahalbidetuko du.

Espazio berriak **argiztapen naturala** eta **kanpoaldearekin lotura zuzena** izaten jarraituko du, eta eraikinaren ohiko sarbideak mantenduko dira.

Jangela-zerbitzuan hobekuntza

Erdisotoko solairuan jantokiko menuak prestatzeko eta banatzeko erabilitako baliabideak berrituko dira. Helburua makineria **gaurkotzea eta eguneroko lana erraztea** da, zerbitzuaren antolaketa hobetuz.

Gimnasio txikiaren eraberritzea

Jangelako erabilera nagusia duen gune anitz bat sortuko da Haur Hezkuntzako (HH4 eta HH5) eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa ikasleentzat (LH1 eta LH2), instalakuntzak hobetuz eta euren ongizatea hobetuz. **Espazio osagarri gisa erabili ahal izango da beharrezkoa denean**, eraikinaren moldakortasuna handituz.

Eraikinaren instalazio eta mantenuaren hobekuntzak

Honetaz gain, eraikinaren eremu teknikoetan mantentze lan garrantzitsuak egingo dira, **aireztapena hobetuz, hezetasun arazoak murriztuz** eta egiturazko elementu batzuk konponduaz.

Ikastolako instalakuntza batzuk hobetzea aurreikusten da, besteak beste, **frontoiko aldageletako ur beroa** ekoizteko sistema (aerotermiaren bidez) energetikoki eraginkorragoa den irtenbidea emanaz.